

SUKUBO ESPAZIOA

Gasteizko gune transfeminista autogestionatua eta lekuaren garrantzia

Lau urteko ibilbidean ezagun egin dira Gasteizen. Zer esanik ez Alde Zaharrean, bertako Antepara kalean baitute lokala, «leku segurua» eta ahal-duntze gunea. Sexu eta genero aniztasunari dagokionez, erreferentzia falta sumatzen zuten eta Sukubo espazioa da gaur egun erreferentzia hori Arbako hiriburuan. Talde trans-bollo-maritxu hau (LGTB izendapen ofizialagatik ezagunagoa) sexu eta genero aniztasuna aldarrikatu eta ageriko egiten ari da. Sukuboko kideen ikuspegia feminista da, eta uztarketa edo «alian-tza» transfeministaren arrazoia borroka bera partekatzea da, sexu eta genero orientazio edo joera guztien aurrean etsai bera izatea: eredu heteropatriarkal

 **JENDARTEA** / Xabier Izaga Gonzalez

Trans-bollo-maritxu taldea da. Kaleko hotza jasan gabe erretzeko lokal bat alokatu zuten lagunak osatutako taldea. Bazekiten, baina, beste premia larriago batzuk zituztela, eta ezagutzak eta esperientziak trukatzeko hasi ziren 2012an, sistema heteropatriarkal kapitalistaren arauetatik kanpo. Elkartasunean eta autogestioan.

eta kapitalista. Eredu horren arauetatik ihes egiteko «askotariko errealitateen batuketaren ahalmen errebelde eta eraldatzailean» sinesten dute.

Sukubo espazioko bost kidek hartu dute GAUR8: Delia Alonso, Itziar Abad, Nines Garcia,

Idoia Gomez eta Elena Ruiz. Beste edonor izan zitezkeen haien orde; alegia, beste lagun batzuk, sexu eta genero nortasun desberdinekoak. «Gaur bost *bollo* elkartu gara zuekin hitz egiteko, baina hori kasualitatea baino ez da izan. Transak edo

Elena, Idoia, Itziar, Delia eta Nines, Sukuboko kideak.
Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

bestelakoak ere izan zitezkeen hemen».

Sukubo heteronormatiboa ez den esparrua da, erabilera anitzekoa, «polimorfoa, gure desirak eta gorputzak bezala», hasi dira azaltzen. «Gure perbertsioak, gure desirak eta esperientziak kudeatu eta autogestiorako zabalik dagoen esparrua». Uste osoa dute posible dela arau heteropatriarkal eta kapitalistetatik aldentzea, «egungo egoera soziopolitiko eta ekonomikoaren aurrean eutsi, baita hiriari aukera alternatiboak eskaintzeko ere, pertsona zein gizarte gisa hazteko».

Sukubo espazioa da, eta materialtasun horri ere garrantzia handia ematen diote. Izan ere, eurek ez ezik, beste lagun eta kolektibo askok erabiltzen dute lokala, eurek atondu eta mantendutako lokal autogestionatua. Eta autogestioan oinarritutako filosofiaren arabera kudeatzen dute Sukuboren inguruko proiektua.

NOLA HASI ZEN

Istoria hau tabakoaren aurkako legea indarrean jarri zenean hasi zen, zenbait lagunak txoko baten beharra sumatu zutenean. Hala diote, berehala hura nolabaiteko aitzakia izan zela argitu badute ere. Izan ere, horetik babestu beharra zuten, baina kaleko hotza ez zuten erretzen ari zirela bakarrik nabaritzen. Tabakoaren Legea benetako premia bati aurre egiteko aitzakia zen beraz, eta lokal baten bila hasi ziren. Gaur egun Sukubo taldearen egoitza, jarduera lekua eta lagun arteko topagunea dena aurkitu zuten. Ardura zaizkien gaiez hitz egin eta ezaguerak eta esperientziak trukatzeko lekua.

Lokala Antepara kalean (gaztelaniaz, *Cubo*) egoteak zerikusia omen du elkargune horren izenarekin, baina batez ere sukuboaren irudia egokia iruditu zitzaielako erabaki zuten horrela izendatzea. Emakume haragikoi eta menderatzailearen itxura duen deabrua da sukuboa. Hiz horrek «azpian datzana» esan nahi du, inposatutako dikotomia –gainean dagoena/az-



pian dagoena– nabarmendu eta iraultzeko asmoa adierazteko.

Hartara, hotzetik babesteko lekua lortu eta berehala hasi ziren benetako premiei aurre egiten; lehena, hitz egin eta proiektua definitzea. Esan bezala, perspektiba feminista dute, LGTB kolektiboen baitako lagunen helburua heteropatriarkatua, haren inposizio oro bukatzea baita. Argitu nahi dute, nolanahi ere, ez dituztela heteroak baztertzeko; aitzitik, aniztasuna aldarrikatzen baitute, gainerako identitate edo joerak bezala errespetatzen dute heterosexualitatea ere. Beharbada argitu beharra dago lagun transexual edo transgeneroak homosexual, heterosexual zein bisexualak izan daitezkeela; denetatik dagoela, alegia. Indarrean dagoen eredu, heteroaren gailentasuna inposatzen duena, gainerako nortasun eta joerak baztertu edo bigarren mailakotzat jotzen dituen, arbuia egiten dute.

KONTZEPTU NAHASKETA ETA TOPIKOAK

Badakite kontzeptuok guztiok jendartean ez daudela argi eta topiko gehiegi dagoela. Ezjakintasun handia omen dago, baina apurka-apurka aniztasun hori ezagutaraztea lortuko dutela diote. Oraingoz, ordea, sistema heteropatriarkal kapitalistak betikotu nahi dituen dikotomien arabera sailkatzen omen da mundua: natura/kultura, zuria/beltza, gizona/emakumea, aktiboa/pasiboa, heteroa/homoa, goian/azpian... Eta hori barnerratzek sistema bitar horrek ezarritako bizimodua eta pentsaera barneratzea darama berarekin.

Horretaz ari direla, Itziarrek oraindik orain entzundako pasadizo bat kontatu du. Bartzelonan izan zen LGTB kolektiboarekin lotutako politika publikoen gaineko kongresu batean; CUPEko zinegotzi edo teknikari batek kontatu omen zuen nola pertsona batek galdetu zion zer esan nahi duten LGTB leterek, eta lesbiana, gay, transexual eta bisexual hitzen inizialak direla entzundakoan, lagun hark onartu zuen berak uste zuela Kataluniako probintzien inizialak zire-

Hotzetik babestu beharra zuten, baina kaleko hotza ez zuten erretzen ari zirela bakarrik nabaritzen. Tabakoaren Legea benetako premia bati aurre egiteko aitzakia zen, beraz

Sukubo espazioa da, eta materialtasun horri ere garrantzi handia ematen diote. Beste lagun eta kolektibo askok erabiltzen dute eurek atondu eta mantendutako lokal autogestionatua



Sukubo espazioaren sarreran. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

la (Lleida, Girona, Tarragona eta Bartzelona).

Aldaketak, izan direnak eta izango direnak, aurrerabide sozialarekin batera gertatzen direla diote, eta nabarmenago eta sakonagoak izaten omen dira herri mugimendu indartsua dagoenean.

Hizkera argia dute, hainbati gogortxu gerta lekiokenean, nonbait, kexua eta salaketa ez ezik, are erresumina ere sumatzerai-

no. «Politak gara, baina muntro, sorgin, lamia, puta... bihurtu gaitzke, ezkutuaren eta ezkutu nahi den ordenan kokatzen garelako; ahaztuak gara, besteak, haien berdintasun plan tristetean agertzen ez direnak. Gure gorputzak zulagarriak ez ezik, zulatzaileak ere badirelako harro gaude; amets, gorputz eta desioen zulatzaileak dira, harrotasun eta erresistentziaz kutsatzeko». Trans-bollo-maritxu

GAUZA ASKO OPARITU DIZKIEN LEKUA

Sukubo lekua da, ezinbestekotzat jotzen duten lekua.

Autogestionatua eta solidarioa. Ekimen, bilera eta ekitaldi ugari egiten dituzte bertan, baina jai gunea ere bada. Alde ludikoa ere beharrezko dute eta garrantzi handia ematen diote. Lokala eta jarduera guztiak sostengatzeko jartzen duten kuota ez da handia; edonola ere, kideren bat diruz eskas badabil, bestelako ekarpenak ere egin ditzake, hala nola mantentze edo jarduerak gauzatzeko lanak.

Baina espazioa baino zerbait gehiago ere bada Sukubo. Maila pertsonalean gunek zer eman dien kontatzen hasi dira eta nabari da gustura daudela, lekuan eta giroan. Beren buruaz, taldeaz eta egiten dutenaz harro.

Idoia aspaldi hasi zen kolektibo feministekiko harremanetan, unibertsitateko ikasketak bukatzean, 90eko hamarkadaren erdi aldera. Bere burua “lesbianista” gisa definitzen du: lesbiana feminista. Terminoa politizatzeko modu bat dela dio Bilboko MDMA lesbiana taldeko lagunei keinu bat eginez. Gasteizen «ez zegoen ezer lesbianistik», elkargune baten falta sumatzen zuen. Eta aurkitu zuen.

Itziar Bilbora bizitzera joan zen, baina Sukubon jarraitu zuen. «Zure ikuspegia, zure giroa partekatzen duen jendea dagoela dakizun gunea izatea oso garrantzitsua da». Eta Gasteizko gunea hau giro horretako lagunak ezagutzen ez duen jendearentzat zabalik dagoela azpimarratzen du.

Deliak ere esperientzian parte hartzeraz animatzen du jendea. Beti nahikoa zoriontsua izan omen da; hau da, ez du familian ez beste ingurutan arazo handirik izan bere joera sexuala dela eta. Ezin gogotsuago dago Sukubon, asko ikasi duela dio. Ez omen du gai hauetan prestakuntza handirik; hala ere, bere kontuak azaltzen ez da makala.

Nines, beteranoena, oso bitalista da. Ezer esan gabe ere nabari zaio Sukubo gogoko lekua duela. «Mojek nik baino lehenago jakin zuten. Francoren garaian banintzen lesbiana». Aniztasuna maite du, adin eta mota guztietako jendea, eta «arraroa» izatea aldarrikatzen du. «Arraroak garela? Ni bai, behintzat, eta hala izan nahi dut», dio pozik.

Bat dator Elena bere taldekideekin, beren ahalduntze guneaz eta euren arteko harremanez hitz egitean karra aurpegian nabari.

Sukubok «gure adimenarentzat eta gorputzarentzako gauza asko oparitu dizkigu, hala nola lagun ugari, poza, plazera, bizipenak, ezagutza...», diote harpidetza egitera gonbidatzeko orrian.



gehienek bezala, badute erresuminduta hitz egiteko motiborik, ordea. Ohituta daude iruzkin eta begirada morbosoa eta zitalak sumatzen, mespretxua eta bazterkeria jasotzen, eskubideak murriztuta bizitzen. Beren izaeragatik, beren nortasun eta joeragatik. Haien bizitza eskuarki ez da batere samurra izan, familiar, eskolan, lagun artean edota dendan, «behar bezalako pertsonen» arauetatik kanpo bizi diren pertsonak izanik. Gogorazi beharra dago, esate baterako, OME Osasunaren Mundu Erakundeak duela 26 urte, 1990ean, kendu zuela homosexualitatea gaixotasun psikiatrikoen zerrendatik. Baina zenbait haien izaera eskandalagarria iruditzen zaienez, ez da harrigarria beraien adierazpenak eskandalagarritzat jotzea. Hala ere, egiaz ez dute herrarik, ezta erresuminik ere, adierazten. Are

gutxiago inor baztertzeko asmorik. Nolabaiteko paradoxa ondoriozta liteke: Sukubo zerbaiten aurka sortu zen, baina pertsona guztien alde egiteko, inor baztertuko ez duen jendar-tea baitute helburu.

LEGEDIAREN HUTSUNEAK

Joan den larunbatean Jose Angel Oriak, GAUR8ko erreportaje batean, munduan zehar sexu nortasuna dela-eta jazarritako lagunen egoeraren berri eman zuen. Sukubo taldeko kideek gogorazi dute Estatu espainolean, EAEn eta Nafarroan badirela berdintasun legeak eta indarkeria matxistaren aurkakoak; hala ere, lege horiek hutsune handiak dituztela diote. Indarkeria sexista, oro har, ohiko bikotean gertatzen dena baino ez da lege horien arabera, senarrak emaztearen aurka edo mutilak neskalagunaren edo neska-lagun



Antepara kalean, beren lokalaren parean. Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

ohiaren aurka egindakoa. Egitura eta eskema jakin batzuen arabera araututa. Emakume askok jasaten duten indarkeria ez dago legedi horretan jasota, are gutxiago heterosexualak ez direnek jasaten dutena, indarkeria horrek jatorri matxista berbera izanik. «Guk usaindu ere ez dugu egiten legedi hori».

INTERSEKZIONALITATEA

Sukubo taldearen begirada transfeministak emakumearengan eta sexu edo genero nortasunean ez ezik, beste gatazka eta borroka batzuetan ere jartzen du fokua. Desberdinkeria eta bazterkeria iturri guztietan. Eta Palestinako adibidea dakarte gogora. Han, emakume/gizon dikotomiaz gain, israeldar/pa-

lestinar dualtasuna ere badago. Ondorioz, emakume israeldar batek gizon palestinar batek baino pribilegio gehiago ditu, zantalzarik gabe –eta, zer esanik ez, emakume palestinarrek baino gehiago–. Hortaz, genero nortasunaz gain, klase, etnia eta bestelako nortasunak onartzea sustatzen dute. Horri interseksionalitatea esaten diote, eta oso arlo garrantzitsua iruditzen zaie, borroka elkargune gisa. Halaber, uste dute interseksionalitatea feminismoarentzat ezin bestekoa –«giltzarria»– dela.

HARREMAN UGARI

Sukubok beste hainbat talde eta erakunderekiko harremanak ditu. Horietako bat kale berean dagoen La Mostrenka kultur gune alternatiboa da, garrantzitsua baiteritzote auzo dinamikari. Eta horregatik parte hartzen dute Zaharraz Harro, Gasteizko Alde Zaharreko ekimenean ere. Laster Alde Zaharreko jaiak izango dira, eta Zaharraz Harro arduratzen da haien antolaketaz, baina, horrez gain, beste jarduera asko antolatzen ditu, Sukuboren antzeko autogestio filosofia oinarri izanik. Egunotan auzotarren konpromisoa sustatzeko kanpaina abiatu du: «Elkar zaintzen duten lagu-

Oraindik sistema heteropatriarkal kapitalistak betikotu nahi dituen dikotomien arabera sailkatzen omen da mundua: zuria/beltza, gizona/emakumea, heteroa/homoa...

«Politak gara, baina munstro, sorgin, lamia, puta... bihurtu gaitezke, ezkutatu nahi den ordenan kokatzen garelako; ahaztuak gara, berdintasun plan tristeetan agertzen ez direnak»

nez osatutako Alde Zaharra amesten dugu, aldarrikapenez betea eta bizi-bizia». Amets horretan, «emakumeek lasai asko irri egiten dute, irri eta salto goizean goiz zein gaueko ordu txikit, eta beldurrak edota erasoak ez dira kabitzen kale kantoietan». Halaber, «Alde Zahar anitza da gurea baina aniztasun hori altxorra balitz bezala zainduko duen auzokidez betea».

JARDUERAK

Bestetik, Sukubok Euskal Herriko mugimendu feministak “11 eraso, 12 erantzun. Feministok prest!” lelopean Gasteizen deitu zuen manifestazio nazionalaren eta ekitaldien antolaketan parte hartu zuen. Baita, duela bi urte, Abortu Legearen aurkako ekimenean ere.

Eta geldiegi egoteko joera eta gogo handirik ez dutenez, gune transfeminista honetako kide batzuek beste talde eta proiektu batzuetan ere parte hartzen dute. Horietako batzuek, hala nola Arabako Emakumeen Asanbladak, 7-20 lesbiana taldeak eta Las Ramonas lodifobiaren aurkako taldeak, Sukubon bertan

begin ohi dituzte beren bilerak. Mugimendu feministan eta herri aldarrikapenen aldeko beste zenbait ekimenetan parte hartzeaz gainera, besteak beste hitzaldiak, aldizkari eta liburu aurkezpenak eta tailerrak egiteko leku bihurtu dute Sukubo. Lantzen dituzten gaietan jende aitzindaria ekarri ohi dute, Euskal Herrikoa bertakoa zein Estatukoa, eta lagun horien jarrera militantea eskertzeko aprobe txatu dute.

Azken hilabeteetan “Bihurriok oihuka” hitzaldi ziklo luzea abiatu dute. Askotarikoa, jende ugari parte hartzen ari dena eta emankorra. Honako gaiez jardun dute zikloan: “Transgenerismo/Transexualitatea”, “Gorputz askotarikoak/Lodifobia”, “Poliamor”, “Ekonomia lesbofeminista”, “Feminismoa Palestinan. Ikusgaitasuna” eta “Feminismo dekoloniala”. Ziklo berean hainbat aldizkari feministaren aurkezpena egin dute, hala nola “Pikara Magazine”, “La Madeja” eta Ekuadorko “Flor del guanto”-rena, besteak beste.

Halaber, Chiapasko Kinal Antzetik eta Gasteizko 7-20 talde-

Sukubo taldeko kideen begirada transfeministak beste gatazka eta borroka batzuetan ere jartzen du fokua. Desberdinkeria eta bazterkeria iturri guztietan

Setem Hego Haizea garapenerako gobernu kanpoko erakundeak bultzatutako proiektu batean parte hartu dute, Chiapas eta Gasteizen lesbianen memoria historikoa berreskuratzeko

kiko elkarlanean, Setem Hego Haizea garapenerako gobernu kanpoko erakundeak bultzatutako proiektu baten partaide ere badira, Chiapasen eta Gasteizen lesbianen memoria historikoa berreskuratzeko.

Atzokoan, hilak 24, berriz, Sukubo espazioan bertan Sof Cooperrek, *chique* batek (ez gizon ez emakume), “Ahizpak, Solidaridad y Autodefensa” izeneko tailer-jardunaldia egin zuen, indarkeria matxista jasaten duten bere zenbait adiskideek ikasten jarraitu ahal dezaten dirua lortzeko ekimena.

Eta betiere alderdi ludikoa ahaztu gabe, bai euren artean bai Sukuboko jardueretan parte hartzen duen jendeari, baita kaleko bizilagunei ere, jai giroan parte hartzeko gonbidapena egin ez. Horren erakusgarri, 2014ko Martxoaren 8ko jaia gogora ekarri dute: 80 lagun bildu ziren Sukubon, estu samar baina giro bikainean.

Ekimen ugari izaten dira Sukubo espazioan.
Jaizki FONTANEDA | ARGAZKI PRESS

